OLARIZUKO ERROMERIAN SALTOKIAK INSTALATZEKO BAIMENAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK. 2025. URTEA

1. OLARIZUKO ERROMERIAKO SALMENTAREN EZAUGARRIAK

2025eko irailaren 15ean, astelehenez, Olarizuko erromeria tradizionala izanik, txosnen eta egun horretarako ohiko jaki artisauen saltokien kokalekua zein salgaiak arautu beharra dago, saltokiak egokiak ez diren tokietan jar ez daitezen eta jaiaren berezko izaera gal ez dadin.

50 baimen emango da, gehienez, egun horretarako jaki artisau tradizionalen saltokietarako; 2 postu ohiko produktu artisauen salmentarako; 12 postu txosnetarako; eta 13 postu izozki salmentarako.

Dena dela, Udalak bere gain izango du baimen-kopurua aldatzeko eskubidea, baita kategoria bakoitzeko gehieneko baimen-kopurua eta kokapena aldatzeko eskubidea ere, dela eskaerak hala eskatzen duelako, dela saltokiak antolatzeko beharragatik.

2. ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA AURKEZTEA:

Txosnak eta saltokiak instalatzeko baimenak eskuratu nahi dituztenek, deialdi honetan xedatutako baldintzen ildotik, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskabide-inprimakia / erantzukizunpeko aitorpena (eranskina), eskatzaileak izenpetua, non Gasteizko Udalerrian Kaleko Salmenta arautzeko udal-ordenantzak salmentarako ezarritako eta deialdi honek xedatzen dituzten betebeharrak betetzen direla adierazten baitu.
- Eskatzailearen IFZren edo IFKren fotokopia, edo Europar Batasuneko kide den estaturen batek zerbitzua emango dionari emandako antzeko egiaztagiriarena, edo lan-baimenarena eta egoitza-baimenarena indarrean direlarik.
- Eskatzaileak ordezkari bidez jardunez gero, ordezkariaren NANaren edo horren baliokidea den agiriren baten kopia, bai eta ordezkatze-ahalmena egiaztatzen duen agiria ere.
- Gizarteratze enpresen eta bidezko merkataritzaren kasuan, Estatutuen fotokopia.

- Elikadura-higienearen arloan jasotako prestakuntzaren ziurtagiria (halakorik eskatzen duten salgaien kasuan).

3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskaerak **2025eko ekainaren 9tik 20ra arte (biak barne)** aurkeztu behar dira, modu hauetakoren batean:

- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 01008).
- Herritarrei laguntzeko bulegoak (HLB).
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.
- Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100

Eskabidea postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Gasteiz— bidaltzen bada, **posta ziurtatu** bidez egin behar da. Kasu horretan, eskatzaileak posta-bulegoan bidalketari ezarritako data justifikatu beharko du, eta mezu elektroniko bat bidali beharko du helbide elektroniko honetara (comercio@vitoria-gasteiz.org), eskabidea posta ziurtatu bidez bidali dela adieraziz, betiere eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen. Mezu elektroniko horretan jasota geratu beharko da eskabidea bidali dela, baita bidalketaren data ere, eta deialdiaren eskabide-orriaren kopia bete eta erantsi beharko da. Bestela, ez da eskaria onartuko.

Informazio gehiago:

- Telefonoz bidezkoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00).
- Udalaren webgunean: www.vitoria-gasteiz.org

Oro har, ez da eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean eskainitako saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da epea gainditu ostean aurkeztutako eskabiderik. Halakorik gertatuz gero, saltokien kopurua betetzeko behar

beste eskabide hartuko da aintzat, betiere eskabideak Udal erregistroan sartu diren dataren hurrenkerari jarraituta.

Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu dezake. Eskabidean, gehienez 3 kokapen hautatu beharko dira, deialdiaren planoa kontuan hartuta.

Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdiaren oinarriak onartzen direla esan nahiko du.

4. SALTOKIAK JARTZEKO LEKUA

- Zelai barruan: Txosnak eta izozki-saltokiak.

  Txosnak zelai barruan jarriko dira, mendirantz begiratuta eskuinaldean, zehazki zedarrituko den gunean.

  Zelai barruan gehienez ere izozki-saltoki bat instalatu ahal izango da etxe bakoitzeko Saltokien kokapenari dagokionez, ezin izango da jarri inolako izozki-saltokirik zelaiaren erdialdean, ez etxaldearen eta zubiaren artean ezta zuhaitzen ilararen eta txosnen artean ere.

  Zelaiaren gainerako azaleran Udalak programatutako jarduerek izango dute lehentasuna, eta izozki-saltokien eta txosnen arduradunen betebeharra izango da bertan egongo diren Udalaren arduradunekin uneoro koordinatzea eta haiek egiten dituzten oharpenei kasu egitea.

- Zelai kanpoan: Gainerako saltokiak

  Erromeriako ohiko produktu tradizionalen saltokiak, ohiko artikulu artisauen saltokiak eta gainerako izozki saltokiak zelaiaren sarbidean jarriko dira, kanpoaldean, ibilgailuen trafikoa eta oinezkoen joan-etorria ez eragozteko moduan.

Zehazki, izozki-saltokien banaketa honelakoa izango da:

- Zelai barruan: 4 postu.
- Gurutzerako sarbidean.
  - Saltoki bat zelaitik kanpoaldean, etxaldeko atzealdean (sarbideko galtzadan sartu gabe, ezta aparkalekuan ere).
  - Saltoki bat Gurutzerako aldapan, Gaztelu Herrirako bidegurutzean.

- Zelai kanpoan: 7 saltoki Olarizuko Hiribidean.

5. BAIMENAK ESLEITZEA:

Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan aurreikusitako saltokiak esleitzea.

Eskabideak jaso eta izapidetzeko onartu ostean, eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, Merkataritza Zerbitzuko udal-teknikariek txosten bat egingo dute. Azokako saltokiak Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez esleituko dira, Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 22ko Eskumenak Eskuordetzeko Erabakiaren haritik.

Oro har, saltoki bakarra esleituko da onartutako eskaera bakoitzeko, izozki-saltokien kasuan izan ezik. Kasu horretan gehienez ere lau saltoki esleitu ahal izango dira eskatzaile bakoitzeko (kontuan hartuta kokapen bat baino gehiago izan litekeela erromeriarako izendatutako eremuan)

Txosnetarako eta salgaietarako saltoki guztietatik 4 gizarteratze-enpresentzako eta/edo bidezko merkataritzarako erreserbatuko dira, baldin eta horiek deialdi honetako baldintzak eta betebeharrak betetzen badituzte. 4 saltoki horiek betetzeko nahikoa eskatzaile izango ez balira, aipatutako 4 saltokiak gainerako eskatzaileen artean banatuko dira.

Postu-mota bakoitzaren eskabide-kopuruak gehieneko baimen-kopurua gainditzen badu, postuak zozketa publiko bidez esleituko dira Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailean, eta, beraz, edozein pertsona bertaratu ahal izango da.

Udalaren iragarki-taulan jakinaraziko da zozketa noiz egingo den, eta emaitza aktan jasoko da.

Saltokiak esleitzeko ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik.

6. SALTOKIEN KOKALEKUA

Eskatzaileek hiru kokaleku-posibilitate aukeratuko dituzte, hiru gehienez ere, eta eskabide-orrian adieraziko dituzte saltoki-zenbakiak (deialdi honi erantsitako planoari jarraiki), beren lehentasunaren hurrenkera berean.

Izozki-postuen kasuan, eskatutako kokapen bakoitzeko (Olarizu hiribidea, zelaiaren barnealdea eta Gurutzerako sarbidea bertara iritsi gabe) adieraziko da kokapenaren lehentasuna.

Eskatzaile batek baino gehiagok postu bera eskatuz gero, kokapena esleitzeko kontuan hartuko dira eskaeran adierazitako lehentasunak, produktu-kategoria, eskaria eta Udalaren antolamendu-beharrak.

7. EMAITZAK ARGITARATZEA

Esleipendunen eta horietako bakoitzari esleitutako saltokien zerrenda eta –halakorik izatera–, itxarote-zerrenda **2025eko uztailaren 16tik** aurrera argitaratuko da Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org). Halaber, Udalaren argibideetarako 010 telefono zenbakira deituta (945 161100 Gasteiztik kanpo deituz gero) jaso ahalko da informazio hori.

8. ESLEIPENDUNAK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Erabilera publikoko lurretan jarritako saltoki, barraka, salmenta-etxetxo, ikuskizun edo jolas-instalazioengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantzan (7.1. atala, 6.6 epigrafea) jasotzen den prezio publikoa likidatu beharko du eskatzaileak instalatzeko lizentzia eskuratu baino lehen. Hauek dira 2025. urte osorako prezio publikoak:

- Janari, fruitu lehor, barkillo eta antzekoak saltzeko saltokiak: 78,86 euro
- Txosnak eta denda-ibilgailuak…… 165,06 euro

2025eko **uztailaren 22tik abuztuaren 22ra bitartean** (biak barne) ordaindu ahal izango da, leku eta modu hauetakoren bat baliatuz:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderreko edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, finantza-entitateren batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Ordutegia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak: 010 eta 945 16 11 00.
- Internet bidez, webgune honetan: https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/

Baimena galduko dute esleipendun suertatu arren ezarritako epean tasa ordaindu ez eta oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen ez dutenek. Baimen horiek itxarote-zerrendan daudenei emango zaizkie, ezarritako hurrenkerari jarraiki, eta dagokion tasa ordaindu ondoren.

9. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK

- Baimenak 2025eko irailaren 15erako emango dira.
- Saltokiak irailaren 15eko goizeko 00:07etatik 11:00etara bitartean muntatuko dira, beti ere Herritarren Segurtasunaren Udalaren Sailak bezperako arratsaldetik egiteko baimena ematen ez badu. Txosnen kasuan, muntatzeko zailtasunak dituztenez gero, muntatze lanak erromeriaren aurreko ostiralean hasi daitezke. Edonola ere, muntaketarako aurreikusitako data jakinarazi beharko diote Merkataritza Zerbitzuari.
- Saltokiak ezin izango dira desmuntatu jendea dabilen artean, 2025eko irailaren 15eko (astelehena) 21:00ak baino lehenago, eta guztiz kenduta beharko dute egon 2025eko irailaren 17ko 12:00ak baino lehenago.
- Ohiko produktu artisauen saltoki bakoitzak 4 metroko luzera izan ahalko du gehienez ere (eta gutxienez metro beteko tartea bi saltokiren artean), eta 8 metroko luzera gehienez txosna bakoitzak (eta gutxienez 4 metroko tartea bi saltokiren artean).

- Baimenen esleipendunak arduratu beharko du erabilitako gunea garbitzeaz eta jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak biltzeaz; lekua garbi eta erabiltzeko moduan utzi beharko da saltoki edo txosna kentzeko unean..
- Esleipenaren titularrak beren gain hartzen du salmentan berak zuzenean jarduteko, eta jardueraren gaineko erantzukizun zibileko asegurua izateko betebeharrak.
- Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du deialdi honetan jasotako baldintzak betetzen direla, ikuskaritza bidez.
- Baimenaren titularra izango da jardueraren ondorioz sor litezkeen kalte-galera guztien arduraduna.
- Ezingo da deus zoruari lotuta atxiki, eta behar bezala babestu beharko da hura.
- Esleipendunek udaltzainen aginduak eta Udaleko arduradunenak bete beharko dituzte une oro.
- Debekatuta dago saltokia erdibanatzea, lagatzea edo alokatzea.
- Janari- eta edari-postuek, edo produktuak prestatu edo erakusteko erregaiak edo material sukoiak erabiltzen dituztenek, suteen aurkako prebentzio-neurriak izango dituzte, eta su-itzalgailu bat izatea eskatuko da gutxienez.
- Baimenaren titularrek datu hauek jarri beharko dituzte ikusgai, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:
  - Tasa ordaindu izanaren agiria.
  - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.
- **Ibilgailuak**: 2025eko irailaren 15eko 11:00etatik 21:00etara bitartean ezin izango da ibilgailurik egon ez zirkulatu zelaien inguruetan eta hango sarbideetan, Herritarren Segurtasunaren Saileko berariazko baimena izan ezik, ezta inolako ibilgailurik aparkatu izango saltokien atzealdean ere, ezta bertako etxaldeko sarreraren aurrean ere.

10. SALTOKIETAKO LANGILEAK. ESKAKIZUNAK

- Saltzeko lizentzia emango bazaio, Gasteizko Udalean ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu, aurretiaz eta nahitaez, eskabidea egiten duen pertsonak. Ofizioz egiaztatuko da betekizun hori betetzen den.
- Merkataria Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda egotea, eta kuotak ordainduta izatea, erromeriak irauten duen bitartean. Baldintza hori bete beharko dute beren kargura dituzten langileek.

- Ekonomia jardueren gaineko zergan dagokion epigrafean izena emanda egon behar da merkataria, eta tarifaren ordainketa egunean eduki, edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan izena emanda egotea.
- Merkataritza-jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko asegurua izatea, ordainduta, eta indarrean.
- Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak zein bestelakoak betetzea.
- Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea. **Gasteizko Udalak emandako ordainagiriak bakarrik balioko du erromeriako jardueraraco baimena duela egiaztatzeko.**

11. HIGIENE- ETA OSASUN-BALDINTZAK

- **Erakusgai dauden produktuei dagokienez:**

- Debekatuta dago sendabelarrak saltzea.
- Manipulatzekotan zatitzea besterik eskatzen ez duten jakiak erakutsi edo saldu ahalko dira bakarrik.
- Produktuak behar bezala identifikatuta egon behar dute, dagokien etiketaren bidez. Etiketarik ez duen artisau produkturik bada, osasun erregistroaren zenbakia eraman beharko du agerian.
- Jaki galkorrak (gazta freskoa, esnegainak, kremak, haragi freskoa, antxoak...) kontserbazio eta tenperatura-baldintza egokietan eduki beharko dira 0 eta 8 ºC artean.
- Jaki guztiek elikagaiei buruzko araudietan ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte beti ere.
- Jaki guztiak ingurumen kutsaduratik babestuta eduki beharko dira, eta inolaz ere ez zuzenean lurraren gainean.

- **Txosnei dagokienez:**

- Txosnak kutsadura sor dezaketen guneetatik urrun jarri beharko dira.

- Txosnak eta saltokiak eraikitzeko materialek horretarako egokiak izan beharko dute, iragazgaitzak, erraz garbitzeko modukoak, eta inolako intoxikazio edo kutsadurarik sortuko ez dutenak.
- Aretoaren oinarria kaleko lurretik isolatuta egongo da, eta garbitzen eta desinfektatzen erraza izan beharko du beti.
- Elikagaiak prestatzen badira, gutxieneko baldintza higieniko-sanitarioak betetzen dituzten espazio/eremuetan prestatu eta manipulatuko dira. Honako hauek egongo dira:
    - Elikagaiak manipulatzeko eremua eguraldi txarretik babesteko modukoak diren instalazioak, erraz garbitu eta desinfektatzen diren materialekin.
    - Edateko uraren udal sarera lotutako harraska edo konketa bat.
    - Hotz-ekipamendua, manipulatzen den elikagai-kopuruari dagokion neurrikoa. Hotzean gorde behar diren produktuak ez dira aterako kontsumitzeko unea iritsi arte, eta ahalik eta arinen zerbitzatu beharko dira.
    - Lan-azalera egokiak, garbitu eta desinfektatzeko errazak diren material lauaz eginak. Lan-bolumenari dagokion neurria izango dute.
    - Sukaldeko tresneria kutsaduratik babestuta egon beharko da.
    - Bitarteko eta instalazio egokiak izan beharko dituzte, salduko dituzten janariak kontserbatzeko eta babesteko.
- Su itzalgailu batez hornituta egon beharko dute. Su-itzalgailuak jarriko dira elikagaiak prestatzera bideratutako eta sute-arrisku handieneko eremuen ondoan, azkar jardun ahal izateko.
- Esleipendunek saneamendu-sarera eta ur-hornidurara konektatu behar dute derrigorrez, kutxatilak erabilita. Esleipendunari dagokio instalazio horretara konektatzea.
- Nolanahi ere, elikagaiei buruzko legedian finkatutako ezaugarriak bete beharko dituzte jakiek. Elikagaiak eta edariak baimendutako enpresetakoak izango dira eta behar bezala identifikatuta egongo dira
- Barran jakirik erakusgarri jarriz gero, kanpoko kutsaduratik behar bezala babestuta eta beharrezkoa bada hoztuta (hozteko beira-arasetan).
- Produktuak ezin izango dute lurzorua zuzenean ukitu.
- Postuan, elikagaien jatorria justifikatzeko dokumentazioa eta elikagaien alergenoak identifikatzeko nahitaezko informazioa egongo da.

- Manipulatzaileek jardueran aritzeko prestakuntza egokia izan behar dute, elikagaien higieneari dagokionez. Baimenaren titularraren ardura izango da hori betetzen dela bermatzea. Beraz, postuan uneoro eskuragarri egon behar dute elikagaiak manipulatzen dituzten langileek dagokien prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duten dokumentuek.
- Jakiak manipulatzean prebentziozko higiene eta osasun arauak bete beharko dira; esaterako: janari fresko eta prestatuak giro-tenperaturan ez uztea, eskuak behar den guztietan garbitzea, kutsadura gurutzatuak eragoztea eta abar.
- Giro-tenperaturan dauden denbora minimizatzeko moduan kontsumituko dira elikagaiak.
- Janari maneatzaileek lanerako bakarrik erabiliko dituzten jantzi egokiak erabili beharko dituzte, eta beti garbi izan.
- Instalazioak guztiz garbi eduki beharko dira.
- Ekipamendu elektrogenoaren eta erregai-deposituaren eremua behar bezala homologatuta eta mugatuta egongo da, soilik antolatzaileak bertara sar daitezen. Dagokion lur-hargunea izan beharko du.
- Salbuespen gisa, eta soilik edateko uraren sarera lotzea erabat ezinezkoa balitz, edateko urezko bidoiak izango dituzte, kanila egokitudunak eta ur zikina biltzeko gailuren bat. Bidoien tamaina eta kopurua txosna bakoitzaren beharren araberakoa izango da.

▪ **Honakoak zainduko dira, oro har:**

- Baxera berrerabilgarria edo birziklagarria edo konpostagarria erabiliko da.
- Hondakin solidoak pilatzea ekidin behar da, eta ontzi egokietara eraman beharko dira.

12. KONTROLA ETA EGIAZTAPENA

Gasteizko Udalak edo ordezkatzen duen erakundeak behar diren kontrol- eta ikuskapen-ekintzak egingo ditu, lizentzia jaso duten saltokiak behar bezala erabiltzen direla eta horietan bideratzen den jarduera deialdi honetan, kaleko salmenta arautzeko ordenantzan (2016ko abenduaren 21eko ALHAO, 143. zk.) eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetan xedatutakoarekin bat datorrela bermatze aldera.

13. HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

Kaleko Salmenta arautzeko Udal Ordenantzaren VI. kapituluko 34. artikuluan adierazten dena izango da arau-hausteen sailkapena.

Udal agintariek, beren zaintza eta kontrol zereginen bitartez, deialdi honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantzan finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla bermatuko dute. Gasteizko Udalak, beharrezko diren kontrol-ekintzak egiteko udala ordezkatzen duen erakundeak egindako txostenak har ditzake oinarri.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dosier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio ofizioz.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotzen duen erabakia hartzeko.

14. BAIMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hauek izango dira salmenta-baimena iraungitzeko arrazoiak:

1. Indarraldia bukatzen denean.
2. Titularrak uko egitea, edo hiltzea.
3. Baimena ematekotan bete beharreko baldintzetakoren bat betetzeari uztea.
4. Eskatzen diren tasa edo kanonak ordaintzen ez badira.
5. Kaleko salmenta arautzeko udal ordenantzaren 7. artikuluaren ildotik baliogabetzea.
6. Baimena galtzea dakarren zigorra ezartzen bada.

15. LIZENTZIA BALIATZEA GALARAZTEN DUTEN EGOERAK

Obrengatik edo beste edozerengatik lizentziaren titularrak ezin badu esleitutako lekuan baliatu, Udalak egoera jakin hori aztertuko luke unean-unean, baina egoera horrek ez du, inola ere, lizentziaren titularraren alde kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko.

16. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (UE) 2016/679 Erregelamendua, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetze aldera, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailak jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak “Sailaren jardueren kudeaketa” izeneko fitxategian sartuko dituela; Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren jarduerak kudeatzea du xede fitxategi horrek. Horien gaineko eskubideak baliatu nahi dituenak —norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetako batera jo beharko du.